


AIARALDEA *hemen*



ALAZNE CAMPO ETA UNAI TEJADA:
“Nola erabaki ume bat ekartzea
bizitza honetara bizi duina izango
duela ezin duzunean bermatu” 2-3 or.

GEHIGARRI BEREZIA:
**Gabonetan Aiaraldean
kontsumitu, oparitu eta
gozatzeko gida**



Masa Kritikoa: mundu mailako tokiko mugimendua

OKONDO 4
Okondoko Kultura
Etxean zegoen amiantoa
kendu du Udalak
Adierazi dute kultura etxea
zela amiantoa zuen udalerriko
eraikin publiko bakarra

ARTZINIEGA 4
Plaka fotovoltaikoak
instalatu dituzte
ikastetxean
Guztira, 36.705,14 eurokoa izango
da energia-azpiegitura berriaren
esku hartzearen aurrekontua

URDUÑA 5
Espetxe frankistako
biktima gehiago
deshobiratu dituzte
Aranzadi Zientzia Elkarteko
kideek hirugarren indusketa
kanpaina burutu dute

AMURRIO 7
Mendiko Eskolako estalkia
Arabako aurrekontu parte
hartzaileetan
Araba osoan boza gehien jaso
duen egitasmoa izan da, 1.116
herritarren babesarekin

AIARALDEA 7
5.600 sinadura bildu
dituzte “osasun sistema
publikoaren alde”
Gasteizen entregatuko ditu
atxikimendu guztiak SOS
Aiaraldea plataformak

JENDARTEA 10-15
Gazteak indarkeria
matxistaren aurkako
agente aktibo
Gai sakontzeko
gehigarri berezia dakar
hamabostekariak

KULTURA 16
Gardeako industriagunea
kolorez bete dute
dozenaka grafitigilek
Hainbat eragilek babestu zuten
ekimena eta iluntzera arte
luzatu ziren ekintzak

KULTURA 17
‘Ritmo Amurrio’
performancea eskainiko
du Bambik
Pieza interaktibo horrekin,
beldur eta ezinegonei aurre
egin nahi die artistak

KULTURA 17
Maspalomas filma
grabatzen dabilza
Urduñan
Moriarti ekoiztetxearen
seigarren film luzea izango da
hirian grabatutakoa

KIROLA 20
Tokiko kirolarien parte
hartze nabaria Arabako
Kros Txapelketan
Aiaraldeko atletak garaipen
ugari lortu zituzten
Artziniegako kirol proban

elkarrizketa



“Egunero hiru alditan gure alabaren bihotztaupaden bila ibiltzen ziren erizainak”

ALAZNE CAMPO ETA **UNAI TEJADA** GURASO IZAN DIRA AURTEN ETA ESPERIENTZIA GOGORRA IZAN DA EURENTZAT. DENBORA LUZEA EMAN DUTE OSPITALEAN BERE ALABA 30. ASTEAN JAIO BEHAR IZAN ZELAKO.



Testua eta argazkia
Aitor Aspuru Saez

Lehenik eta behin, egoera pertsonal oso gogorra igerotzen ari zarete, zergatik erabaki duzue onartzea elkarrizketa?

Alazne Campo: Orain arte bizi izandako egoerak hobera egin du, gure alaba ondo doa, oraindik ez da amaitu, luze joango da, baina bide onean doa. Gure egoera azaltzeak edonori lagundu ahal badio, primeran. Normalean jendeak ez du bizitakoa azaltzen, baina Gurutzetatik atera ginenetik, kalera berriro ateratzean, jende asko hurbildu zaigu berak bizi izandakoaren egoera kontatzera.

Guretzako aberasgarria izan da, animo eta babes pila jaso ditugu, baina gerturatzan zirenentzako onura ere ikusi dugu, beraien egoeraz hitz egiteko, antzeko zerbait pasatzen ari zirenen edo aurretik pasatutako gurasoentzako.

Unai Tejada: Ospitaleratuta egon garen bide horretan, Aiaraldeko bikote asko aurkitu ditugu, eta egoera dirudiena baino arruntagoa dela iruditu zaigu. Horregatik azalpen hau, aurretik guk ere ez genuen askori gertatzen zaien arazoa zela pentsatzen, baina askok arazoak dituzte ama/

aita izateko gehienentzako zoragarria den prozesu horretan. Guri ere arazoa aurkitzean, sortu zitzaizkigun "zergatik guri?" bezalako galderak, baina horrelakoak gertatzen direla jakin dezaten.

Zuen haurdunaldia ondo zihoan, ordea, bat-batean okertu zen, ezta?

U.T.: Ez gara guraso gazteak, momentua aurkitzea kostatu zitzaigun, eta aurrera egitea erabaki genuenean ez zen bat-bateko gauza izan. Azkenean, haurdunaldia era arruntan lortuko ez genuelako susmoa hartzen ari ginelarik, azken momentuan heldu zen, justu tratamendua hastera gindoazela.

Dena primeran zihoan, froga guztiak emaitz aonak ematen ari ziren, eta seme/alaba osasuntsua izango genuen. Hogeigarren asteko ekografiara heldu arte. Astelehen batean izan zen Galdakaon, esan ziguten tamainaz ondo ez zihola, eta Gurutzetatik deituko gintuztela aste horretan froga errepikatzeke. Txanda hurrengo egunerako eman ziguten, 08:30ean. Txanda horren goiz emanda, egoera larria zela iruditu zitzaigun.

A.C.: Horrela izan zen, bat-batean, plazenta ondo eratu

ez zela esan ziguten, zilbor-hestea ez zela pasatzen ari gure alabak garatzeko behar zuen guztia, ezin zutela ziurtatu egoerak noiz egingo zuen txarrera, hurrengo egunean edo aste batzuk pasatuta. Haurdunaldiarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu behar genuela, momentuz organo guztiak jasotzen ari zirenekin, jario ona zeukatela, eta aurrera jarraitzeko erabakia hartzekotan, hogeita hamargarren aстера heldzea zela gure helburu berria. Gure alaba oso txiki jaioko zela, eta ezin ziurtatu zein egoeratan.

Nola hartu zenuten albistea?

U.T.: Munduko guraso zorientzuenak izatetik, kontrakora igaro ginen. Zergatik guri? Zalantza pilo sortu zitzaizkigun, zer edo zer txarto egin genuen, elikatzea... zergatik gertatu zen? Ni erretzailea izateak lagundu izan ahal zuela... Batzuetan gertatzen da eta ez dauka zergatirik, suertatzen da eta listo. Horregatik egoera oraindik gogorragoa egin zitzaigun. Edozeinek nahi barik lortu zezakeena, guk ezin lortu.

A.C.: Bat-batean dena okertzen da eta bakarrik sentitzen zara, ez dakizu zergatik, baina edozeini ondo ateratzen zaiona, zuk ezin. Gainera zure erabaki hori, zure alabaren bitzta baldintza dezakeen erabakia da, ez dakizu jaiotzen

bada, zein egoeratan jaioko den. Erabaki garrantzitsuenaren aurrean bakarrik sentitzen zara.

Berehala oso erabaki zailaren aurrean geratu zineten, gainera.

U.T.: Hogeita hirugarren astera heldu aurretik haurdunaldiarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu behar genuen, inolako ziurtasunik gabe. Aurrera jarraitzekotan, eta hortik aurrera gertatuko zena gertatuko zela, ez zegoela atzera pausorik, haurdunaldia eten ezin zela, eta gure alaba agertzen zitzaionarekin jaioko zela. Gure bizitza betirako baldintzatzearen aukera hartzea guretzat onargarria zen, baina nola erabaki ume bat ekartzea bizitza honetara bizi duina izango duela ezin duzunean bermatu, hori ekiditeko aukera izanda. Lur jota geunden.

Behin aurrera egitea erabakita, zein izan zen prozesua?

A.C.: Gurutzetan probak astero egiten hasi ginen. Ekografia bat egiten zidaten astero, Elenak egiten zidan, Gurutzetara ekarritako ginekologian eta obstetrizian aditua. Bera gure begiak izatera pasatu zen, azkenengo erabakia gurea izango zen, baina lagunduko zigun. Proba bukatzen genuen egun bakoitzean galdetzen genion ea astakeri bat zen aurrera jarraitzea, gure alabak sufrimendua nabaritzen bazuen. Hogeigarren astetik zilbor-hestearen egoera txarrera egin ez zuen, gure alaba jasotzen ari zenarekin mirari bat egiten ari zen, eta organo guztiek jarri ona zeukaten. Gainera, nik nabaritzen nuen pilo zelan mugitzen zen nire alabatxoa, ez dakit nola azaldu, baina bere indarra sentitzen nuen, bera hor zegoela esaten zidan, konexio bitxia zen. Ezin ziurtatu egoerak zenbat iraungo zuen, gertatu zitekeela edozein momentuan okerrera egitea.

Elen gure bdiean agertzea betirako eskertu beharrean gaude, bera gabe gure alaba ez zen gure artean egongo. Betiko gure bihotzean!!!

U.T.: Aurrera egiteko erabakia hartu genuen, organo guztiak jarri ona izanda, aukeraren bat genuen, gure bizitzako erabakirik zailena. Asteroko ekografiarekin jarraitu genuen, zilbor-hestearen egoerak ezin hoberrantz joan, baina okerrerruntz ez zihoan behintzat. Hogeita zazpigarren asteko probara heldu arte, zilbor-hestek berritxo gutxira egin zuela, eta Alazne ingesatuta gelditu zen. Ezin zen ezta etxera joan ere bere gauzak hartzera. Aurrera egitea erabaki behar izan genuenetik, bigarren momentu zaila izan zen hori, bazirudien bukatuta zegoela.

A.C.: Orduan egoera berri bat hasi zen, asteko ekografia bi/hiru egunero egiten genuen, uhalak egunean hiru aldiz jartzen zizkidaten, eta egunero hiru aldiz gure alabaren bihotz-taupaden bila ibiltzen ziren erizainak.

Askotan, txikiegia zenez, eta leku pila bat zeukanez, probak asko luzatzen ziren, horrek zekarren urduritasunarekin. Aurkitzen ez zuten bakoitzean, egoera bukatu zelako beldurra sortzen zitzaigun. Horrela hiru astetan zehar, baina gure alabak bere borrokarekin jarraitzen zuen, heltzen zitzaion gutxi hori kudeatzen, eta gure ametsarekin jarraituz ia hogeita hamargarren astera arte.

Eta azkenean uste baino lehenago erditu behar izan zenuen.

U.T.: Eta azkenean gure helburu berri bihurtutako azken astera heldu ginen. Eta egoerak txarrera egin ezin zuela zirudienean, azkenengo bira. Astelehen horretan Alazne estulka hasi zen, buruko mina... COVIDaren proga egin eta... hurrengo egunean Rosa etorri zitzaigun, laugarren pisuko ginekologia zuzendaria, Alaznek positiboa eman zuela esateko. Guri, ia ez ginela logelatik ateratzen, bisitak mugatzen genituela, Gurutzetako protokoloa zorrotz errespetatzen genuela. Berritxo ere guri. Gainera astearte horretako ekografian plazentak berritxo txarrera egin zuen. Zesarea larunbaterako programatuta zegoen, asteburuak larrialdietarako uzten dituztelako, eta astelehenera arte plazentak iraungo ez zuenez, aurreratuko zuten. Eta ostialera aurreratzeke, ostegunera pasatuko zutela, eskerrak.

“Nola erabaki ume bat ekartzea bizitza honetara bizi duina izango duela ezin duzunean bermatu. Lur jota geunden”

Asteazkenean, plazentak berritxo txarrera egin zuen, gure alabak ia ez zeukan likido amniotikorik. Ni ere COVIDean positiboa eman nuen. Gure alaba kontrolpean izateko azkenengo uhalak 19:00etan jarri zizkioten eta zesarea egin arte utzi, hamazazpi ordu. Hamazazpi orduz egon nintzen monitore bati begira, gure alabak beherakadarik egitean animoak ematen, azken txanpan zegoen.

A.C.: Eta osteguna heldu zen, goizeko hamarrak. Gela berezi batera eramane eta zesarea hasi zen. Ez ziren gerturatu behar, baina prozesu luze honetan lagundu gintuzten Rosa eta Elena han ziren.

Normalean ez ziren erditze eta zesareetara joaten, ez da beren lana, baina merezi genuela esan ziguten, eta ez dugu inoiz ahaztuko. Ez zuten egun horretan han ezer egin beharrik, baina haien presentzia izateak lasaitu gintuen.

Mina saihesteko epidurala baino, indar gehiago zeukan sendagai bat eman zidaten, eta magnesio sulfatoa gure alabaren burmuina ahalik eta kalterik gutxien jasateko. Zorabiatuta nengoen hartutakoagatik, zer egiten ari ziren ez nekien, eta bat-batean Elenaren ahotsa entzun nuen, bere burua nirearen ondoan jarri eta dena azaltzen hasi zen: “Orain moztan ari dira, lasai egon, atera dute, arnasten du eta negarrez dago, hori ona da”.

U.T.: Eta goizeko hamarrak eta hogeita hamahirutan Nahia jaio zen, inkubadora gelatik atera zuten kablez beteta, beste borroka berri bat, baina hau bere kabuz soilik borrokatzekoa.

Berez, guraso izatea egoera horretan latza bada, zuenzat are latzago izan zen COVIDaren ondorioz, ezta?

U.T.: Lehenengo egunak gogorrenak izan ziren. Alazne

laugarren solairura bueltatu zen zesareatik osatzeko. Bere kabuz zuzitzeko gai izan arte, ezin zen bere alaba ezagutzera joan seigarren solairura, eta ni batetik bestera. Ostiral goizean zutitu, gurpildun aulki bat hartu eta ezagutzera joan ginen. Berez musukoa jarri behar genuen jaio berrien eremura sartzeko, baina gure kasuan COVIDa genuenez, oraindik garrantzitsuagoa zen. Protokoloa zela eta, negatiboa izan arte, ezin izan genuen gure alaba ikutu.

A.C.: Bere bizitzaren seigarren egunean izan zen, lehenengo hartu nuen nire alaba.

Nola sentitu zineten zegoera horretan?

A.C.: Hasieran ezin genuen hartu nahi genuenean. Gutxienez ordu bateko txandak, baina ez bi ordu baino luzeagoak. Pare bat txanda egunean. Bidaiak gora eta behera, gauean zure etxera zoaz lo egitera eta zure alaba han uzten duzu, gogorra, nekez sentitzen zara ama horrela. Bisitak ere oso mugatuak ziren, familia hurbila, denbora tarte txiki batez, ordu finko batean. Gure egoeran zeuden beste sei jai berriekin geunden, erizain piloz inguratuta.

Zenbat denbora eta zein erregimenean egon zarete ospitalean?

U.T.: Berrogeita hamasei egunez egon zen Nahia ingesatuta. Egoerak ez zuen ia atzera pausorik egin, hirugarren astean inkubadoratik berotutako sehaska batera pasa zuten, hurrengo astean bitarteko zainketara pasatu zuten intentsibotik. Elikatu eta arnasteko laguntzak kentzen joan ziren.

Azalaz azal deritzon ereduari esker, Nahia hartzeko denborak ere luzatzen hasi ziren, eta Gurutzetan bizitzera pasatu ginen. 08:00etan han ginen, gosaria emateko, eta arratsaldeko 20:00etan bueltatzen ginen etxera. Etxera joateko gomendatzen ziguten, geratzen zitzaigunerako prest eta indartsu egon behar ginelako.

Noiz eta nola itzuli zineten etxera?

A.C.: Nahia ondo zihoanez, eta falta zitzaiona pisua hartzea zenez, etxeko ospitaleratze aukera eskaini ziguten. Ingesatuta egongo balitz bezala, baina behingoz etxean. Bisitan etortzen ziren medikuak bi egunero. Beste hamabi egun eman genituen horrela, alta eman arte, pisua erritmo onean hartzen jarraitzen zuelako. Etxeko ospitaleratzeke emaitzak ere primerakoak, izan ziren aukera ematekotan ez izan zalantzarik.

Nolakoa izan da harremana osasun langileekin prozesu osoan?

U.T.: Ezin hobea, beraien lanari esker Nahia gurekin daukagu. Plazentaren arazoa aurkitu zigutenean, klinika pribatu batera deitu genuen bigarren iritzi baten bila, eta Gurutzetan esandakoaz zalantzarik ez izateko esan ziguten. Ospitale pribatutik Gurutzetara bidalitako kasuak ere ikusi ditugu arazoak agertzean.

Ez ditugu inoiz ahaztuko Elena eta laguntzen zion Nerea, Gurutzetako laugarren pisuko langileak, Rosa ginekologia burua, erizainak, medikuak, garbiketakoak, jaio berrien seigarren pisuko taldea, Laudioko pediatriakoak (Mikel, Irantzu...), emandako babesa eta maitasuna, ezin beraien lanean maitasun gehiago jarri. Aurretik ere horrela uste genuen, baina gertatutakoa ikusita, argi geratu zaigu Osakidetza defendatu behar dugula!

ELKARRIZKETA
OSORIK HEMEN:



“Guri orain dagokigun guztia Nahiari babesa ematea da”

herriz herri

Okondo

Okondoko kultura etxean zegoen amiantoak kendu du Udalak



Amaitu dituzte eraikineko lanak.. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Okondoko Udalak zabaldu du kultura etxeko teilatuan zegoen fibrozementua kendu duela jadanik. Gai horrek amiantoak dauka eta, ondorioz, arriskuak sortzen ditu osasunean.

Lan horiek egikaritzeko zenbait dirulaguntza jaso ditu tokiko erakundeak, Eusko Jaurlaritzako EREIN 2024 programaren bidez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren par-

tetik eta Arabako Foru Aldundia-
ren 2022-23 Foru Planaren bitartez.

Tokiko erakundeak azpimarratu du kultura etxea zela amiantoak zuten udalerriko eraikin publiko bakarra, eta gogoratu du ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legeak fibrozementua kentzera behartzen dituela udalak. 2028rako material hori kendu egin behar denez eraikin publikoetatik, Udalak bukatutzat ematen du aipatutako legearen betebeharra.

Artziniega

Plaka fotovoltaikoak instalatuko dituzte Arteko Gure Ama ikastetxean

Testua
Aitor Aspuru Saez

Artziniegako Udalak laster lizitatuko du plaka fotovoltaikoen instalazioa Arteko Gure Ama ikastetxean. Bi enpresa agertu dira prest parte hartzeko deialdian eta tokiko erakundeak espero du ahal bezain pronto egitea.

Guztira, 36.705,14 eurokoa izango da esku hartzearen aurrekon-

tua eta jadanik Eusko Jaurlaritzak ziurtatu die 22.023,08 euroko dirulaguntza emango diela.

Halaber, Arabako Foru Aldundiaren babesaren lortzea ere espero du tokiko erakundeak, baina oraindik ez dute zehaztu zenbatekoa.

Autokontsumorako azpiegitura hori batuko da orain arte Orozkon, Amurrioren eta Laudion jarritako sortara.

Aiara

Aiarako Udalak salatu du A-15 eta A-16 autobus lineetan egindako aldaketak ez direla nahikoak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiarako Udalak mezu berria helarazid dio Arabako Foru Aldundiari A-15 eta A-16 autobus lineei dagokienez. Izan ere, foru erakundeak ekainean iragarri zituen aldaketak zerbitzuak handitzeko; baina, tokiko udal gobernu taldearen aburuz, egin-

dakoa ez da nahikoa. A-15 linearen kasuan (Gasteiz, Amurrio eta Laudio lotzen dituenak), Aiara-ko Udalak gogoratu du Luiaondo delaterriko administrazio batzarjendetsuena (1.300 biztanle) eta ez daukala Gasteizekin lotzen duen bestelako zerbitzurik. Hortaz, ez dute ulertzen zergatik ez diren herrian sartzen ibilbide hori egiten duten autobus guz-

tiak: "ofizialki bidaia ez litzateke bi minutu baino gehiago luzatuko". A-16 lineak Artziniega, Amurrio, Laudio eta Okondo zeharkatzen ditu eta zerbitzua Luiaondon ez sartzeak (eta ibilbide paraleloa egitea) sortzen du Aiara-ko udalerrian eta kanpoan dauden ekipamenduetatik (ikastola, igerilekuak, etab.) eskegita geratzea, Udalaren aburuz.

Aiarako Gabonetako AGENDA



Aiarako Udala

Abenduak 14

11:00 Luiaondo
Mari Domingiri ongi etorria
"Non dago Olentzeroren txapela" ipuin kontaketa.

17:00 Aiara-ko Udaletxea, Arespalditza
"Johnny cold feet" ipuin kontalaria
Galtzerdiak egiteko tailerra

18:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Bingo musikatua

Abenduak 15

12:00 Olabazar
Olentzero Solidarioa

17:00 Luiaondo
Gabonetako tailer berezia

Abenduak 19

18:00 Luiaondoko Otueta Gizarte Etxea
Bakeroen kustomizazio tailerra

Abenduak 20

09:30 Arespalditzako frontoia
Gabonetako kalejira eta jaiak

18:00 Kexaako Bolatokia
Bola txapelketa
(Aiara-ko Bolatoki taldea)

Abenduak 21

17:00 Luiaondoko Ludoteka
Zapatuero: Gabonetako iratxoak eta goxokiak egiteko tailerrak

18:00 Kexaako Bolatokia
Bola txapelketa
(Aiara-ko Bolatoki taldea)

Abenduak 22

11:00 Kexaako Bolatokia
Bola txapelketa
(Aiara-ko Bolatoki taldea)

17:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Gabon zinema

18:00 Lanteno
Gabonetako dantzaldia

Abenduak 23

18:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Gabonetako pintxoak

18:00 Kexaako Bolatokia
Bola txapelketa
(Aiara-ko Bolatoki taldea)

Abenduak 24

11:00 Kexaako Bolatokia
Bola txapelketa
(Aiara-ko Bolatoki taldea)

17:00 Luiaondo
Olentzero kalejira

Abenduak 26

18:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Gabonetako goxoak

Abenduak 27

11:30 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Euritako kustomizazio tailerra

18:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Munduko jakiak

Abenduak 28

18:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Ihes gela

Abenduak 29

17:00 Luiaondoko Otueta Gizarte Etxea
Ilgande Arratsaldeak Familiar
Gabonetako marrazki, postal, komiki eta ipuin lehiaketa eta ipuin musikatua.

Abenduak 30

18:00 Luiaondoko bolatokia
Bola jaurtiketa soziala

18:00 Aiara-ko gaztelekuak, Luiaondo
Talo tailerra

Abenduak 31

San Silvestre lasterketa

Urtarrilak 4

18:00 Luiaondoko bolatokia
Haurrentzako bola jaurtiketa

17:00 Luiaondo
Haurrentzako Gabonetako Parkea

Urtarrilak 5

17:30 Murga eta Arespalditzako Gizarte Etxea
Errege Magoen jaiak

18:00 Luiaondo Bolatokia
Errege Magoen Bola Txapelketa

Urtarrilak 6

18:30 Luiaondo Bolatokia
Errege Magoen Bola Txapelketa



Urduña

Urduñako espetxe frankistako biktima gehiago deshobiratzeko lanak abiatu dituzte berriro



Hamaika biktima identifikatzea lortu dute DNA frogari esker. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urduñako hilerrian izan dira berriro Aranzadi Zientzia Elkarreko kideak. 2014an abiatutako indusketa lanei segida eman diote deshobiratze kanpaina berri honekin. Aurreikusitako bezala, 30 pertsonen gorpuzkiak berreskuratuta dituzte. Hezur horiek, aurreko bi kanpainen topatutako 71 gorpuzkiekin batera, ehunera igo dute aurkitutako biktimen kopurua. Artxiboetako datuen arabera, 225 pertsona hil ziren Urduñako kontzentrazio-esparru eta espetxe frankistan 1937 eta 1941 ur-

teen artean. Behin indusketa lanak amaituta, hezurak identifikatzea izango da erronka nagusia. Biktimen senideen DNA laginen bidez, 11 gorpuzki identifikatu eta familien esku utzi dituzte azken urtean. Hori dela eta, DNA laginak biltzeak duen garrantzia egin dute azpimarra. Urduñako preso gehienak Espainiako estatuko hegoaldeko ekarri zituzten, Badajozeko probintziatik. Hain zuzen ere, bertako elkarte eta ikerketa-taldeekin harreman egiten ari da Gogora Institutua hezurren identifikazioa ahalbidetuko duten ahalik eta DNA lagin gehiago biltzeko.

Gogora Institututik iragarri

dute Urduñako hilerriaren kanpoaldean instalatutako Duintasunaren Kolunbarioa handitzeko lanak abiatuko dituztela datorren urtean. Identifikatu gabeko zein identifikatutako gorpuzkiak hobiratzen dira bertan (familiek horrela nahi izanez gero), eta hezur gehiagoren aurkikuntzak beharrezkoa egin du azpiegitura handitzea. Alonsok azaldu duenez, 60.000 euroko kostua izango du obrak. Iker Santocildes Urduñako alkateak esker ona adierazi die hiriko bizilagunei; izan ere, ezinbestekotzat jo ditu urduñarren ulermena eta ahalegina hilerriko horma-hobiak erretiratzeko orduan.

Orozko

Emakumeentzako lokal bat irekitzeko lehen urratsa egin dute Orozkon

Testua
Aitor Aspuru Saez

Orozko Udalakeztabaida abiatu du emakumeen espazioa beharrezkoa den erabakitzeko. Azaroaren 28an eman zuten bide horretan lehenengo urratsa, gazte txoko zaharrea egindako bilkuran. Goizeder Moral Poncek. Hori guztia erabaki ondoren, azken urratsa espazioa bera prestatzea litzaiteke. Baina, nolabait, teknikariak iradoki du Orozko Udalak baduela toki bat horretarako baliatu ahal dena, baldin eta eztabaidetan erabakitzen dena horretara egokitzen bada.

Testua
kia, azaleratuta zein behar dauden eta zer den beharrezkoa behar horiek asetzeko", nabarmendu du teknikariak. "Lekua behar den edo ez, eta emakumeen erabilerarako barrik izango den edo ez argitu beharko genuke, besteak beste, gero araudia sortzeko", azaldu du Goizeder Moral Poncek. Hori guztia erabaki ondoren, azken urratsa espazioa bera prestatzea litzaiteke. Baina, nolabait, teknikariak iradoki du Orozko Udalak baduela toki bat horretarako baliatu ahal dena, baldin eta eztabaidetan erabakitzen dena horretara egokitzen bada.

HERRI BAT
MERKATU
BAT

SANTA LUZIA AZOKA

OROZKO

Abenduak 14
10:00-14:00

HEGOALDEKO KARPAN

- 10:00-14:00 Bertako nekazaritzako elikagaien azoka.
- 10:30 Terreña arrazako lehiaketa.
- 12:00 Terreña arrazako hamburgesa dastapena.
- 12:30 Idiskoek enkantea, Ganguren testaje zentrokoak.
- 13:30 Sarien banaketa.

PLAZAKO FRONTOIAN

- Artisautza azoka 10:00-14:00

GORBEIALDE
LANDA GARAITENA

Gorbeia

Bizkaia

orozko

Dastatu betiko
esnearen zaporea



EUSKAL HERRIA
esnea



egin eskaera www.ekonomatua.eus-en

babestutako edukia

Gabon garaian Laudioko merkataritza dinamizatzeko makina bat ekintza antolatu ditu APILL elkarteak: Zozketak, deskontuak, lehiaketak... Besteak beste, Aldai Plazan, ordu beteko doako aparkalekua eskainiko die Laudioko erdigunera erosketak egitera datozen herritarrei.

“Gabon hauetan gure herriaz gozatzea baino opari hobeagorik ez dago!”

Gabonak ate-joka dauden honetan Laudioko APILL elkarteak, hainbat erakunderekin elkarlanean merkataritza dinamizatzeko plana osatu du, “Gabonetan herri biziagoa, erakarriagoa eta alaiagoa lortzeko” helburuarekin. Hainbat erakunderen babesa jaso du APILLeko kanpaina aurrera ateratzeko. Eusko Jaurlaritzak Hirigune laguntzaren bidez eta Laudio Berrikusi Finkatu proiektuaren bidez ekarpena egin diote dinamizakari, baita Arabako Foru Aldundiak eta Laudioko Udalak ere. Beste erakunde batzuek ere laguntzen dute ekintza zehatzetan, hala nola Rural Kutxa eta Bebidas Serrano.

Urtero bezala, erakusleho lehiaketak argia eta kolorea jarriko die udalerriko kaleei. Aurtengoa lehiaketaren XXXI. edizioa izango da, eta audioarrena izango da erakusleho onena aukeratzearen ardura. Horretarako, Laudio Berrikusi aplikazioaren bidez edota alizkariko kupioen bidez bozkatu ahalko dute herritarrek gustuko duten eskaparatea. Pertsona bakoitzak boto bat baino ezingo du igorri. Parte hartzaile guztien artean Bebidas Serranok lagatako bi saski, Laudion bizi, Laudion erosi leloa duten kamisetak eta 2025eko egutegiak zozkatuko dira. Erakuslehoen Ginkanak osagai berria eskainiko dio aurtengo erakusleho lehiaketari. Abenduaren 10etik 15era bitarte, Gabonetako erakuslehoak bisitatzeko dituzten herritarrek 400 euroko balioa duten erosketak bozkatu ahal izango dira.

Zozketa gehiago

Udalerriko komertzioetan

erosteetatik zozketa gehiagotan parte hartzeko aukera izango dute. Alde batetik bi tablet zozkatuko dira erosle bakoitzak aukeratzeko duenarentzat; “aukeratu nor harritu nahi duzun”, adierazi dute APILLeko kideek. Tabletaren zozketetan parte hartzeko nahikoa izango da saltoki parte hartzaileetan norberaren datuekin txartela betezea eta APILLen egoitzako postontzian uztea.

Bestetik, 73 eurotan balioetsitako hamahiru lote zozkatuko dira ausaz Laudio txartela 10 eurotik gorako erosketetan erabiltzen duten herritarren artean. “Garrantzitsua da proiektuari atxikitako saltokietan egiten dituzten erosketetan txartelari adi egotea”, azaldu dute antolatzaileek.

Zozketa potoloena, ordea, Laudion gastatzeko 1.000 euroko txartel berriarena izango da. Zozketa honetan parte hartzeko, herritarrek abenduaren 15era arte dute epea erosketen tikeak Laudio Berrikusi aplikazioan igotzeko. 1.000 euroko bonuaz gain, bigarren sari bat egongo da ere: Aingeru Olabarrieta Athleticeko jokalaria sinatutako 33 zenbakidun elastikoa.

Ordubeteko aparkalekua

Merkataritza dinamizatzeko asmoz, ekimen berritzailea mahaigaineratu dute APILLetik. Aldai aparkalekuan autoa uztea doan izango da lehenengo ordubetea. “Gure Hiriko Merkataritza Gunera autoz hurbiltzen diren bizilagun eta bezeroei Gabonetako erosketak errazteko helburuarekin, lehen ordua doakoa izango da Aldaiko aparkalekuan. Abenduaren 9tik aurrera eta iza-



Merkataritza dinamizatzeko kanpaina jarri du abian APILLek. Aiaraldea.eus

kinak amaitu arte, parte hartzen duten establezimenduetan erosketak egiten dituzten herritarrek ordubeteko parking txartela eskuratuko dute”, jakinarazi dute merkatariei eta ostalariei elkartetik.

Olentzero eta Mari Domingi

Ohitura bilakatu da Olentzero eta Mari Domingi herriko txikienei telefonoz deitzea, eta aurten ere ez dute hutsik egingo. APILLek sustatuta, herriko komertzioetan aurkitu ahal da telefono deia jasotzeko izen-emate txartela. Interesa

Urtero bezala erakusleho lehiaketak argia eta kolorea jarriko die udalerriko kaleei

duten familiek datuak bete eta izen-emate orria APILLen postontzian uztea besterik ez dute.

Ekimen gehiago

Merkataritza dinamizatzeko ekimenek ez dute etenik. Zozketa eta Olentzero eta Mari Domingiren deiez aparte, abenduaren 9tik 24ra 5 euroko kupoiak Laudio Berrikusi APParen bitartez eskainiko dira. Gainera, 2025eko egutegiak banatuko dituzte. Oraingo honetan, “Laudio: kaleak, auzoak eta tokiko enpresa” izan da egutegirako gaia.



Deskargatu Laudio Berrikusi APPa eta gozatu!



www.laudiocomercial.com



Amurrio

Mendiko Eskolako estalkia eraikitzekeo proiektua hautatu dute Arabako Foru Aldundiko aurrekontu parte hartzaileetan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Gasteiztarrak ez diren arabarrek aukera izan zuten urritik azarora bitartean lurralde historikoko aurrekontu parte hartzaileetan iritzia emateko. Izan ere, Aldundiak dirua bideratzen du horretara, eskualde baikoitzeko proiektu bana babesteko. 2025eko edizioan Amurrioko Mendiko Eskola izan da egitasmorik bozkatuena eta, ondorioz, diruz lagunduko du erakunde foralrak.

Eskolako jolastokian estalkia jartzeko proposamenak 1.116 boza jaso ditu eta Aiarako Kua-drillako gainerakoak gainditu ez ezik, beste eskualdekoak baino babes zabalagoa eskuratu du. Izan ere, Soxogutiko errota hidraulikoa eraberritzeko eta Arespalditzan bolatokia eraikitzekeo proiektuek ez dituzte lortu exijitutako gutxieneko botoak, Amurrioko Mendiko Eskolakoak kopuru hori ia bikoiztu duen bitartean. Babes gehien jaso duten ekimenak hauek izan dira: Añanako udal- eta foru-kudeaketako egunezentroaren ingurua urbanizatu nahi duena eta Mendialdean

Zumaldeparkean altzariak berri-tzea eta ingurumena eraberritzea ekarriko duena, 352 eta 113 bozekin, hurrenez hurren.

Mendiko Eskolak berak horrela deskribatu zuen bere asmoa: "Ekimen honek funtzio anitzeko espazio bat sortu nahi du, eskola-komunitateari eta bertako biztanleei mesede egingo die. Estalkiak patioaren erdialdetik eraikin nagusiaren fatxadaraino hartuko luke, eta alboetatik irekitako egitura diseinatu izango luke. Estalki horrek eragin nabarmena izango luke ikasleen eguneroko bizitzan, eta babestutako eremu bat eskainiko luke, bai egun bero eta eguzkitsuetan, bai euritsuetan. Aire zabaleko jarduerak egitea ahalbidetuko luke, haien garapen fisikoa eta soziala sustatuz. Gainera, kontzertuetarako, antzerki-ikuskitzuetarako, merkatuetarako, herri-bazkarietarako eta beste jarduerak batzuetarako erabili daiteke, hala nola Oporretan Euskaraz ekimenean eta herritarren gizarte-loturak indartzeko. Alboetatik irekitako egiturak aireztapen egokia eta ingurunearekiko konexio-sentsazioa bermatuko lituzke".

Aiaraldea

5.600 sinadura baino gehiago bildu dituzte eskualdean "osasun sistema publiko eta duinaren alde"

Testua
Txabi Alvarado Bañares

5.646 sinadura bildu dituzte guztira "Aiaraldean osasun sistema publiko eta duina eskatzeko". Hala adierazi dute SOS Aiaraldeako kideek prentsara bidalitako ohar baten bidez. Nabarmendu dutenez, "fisikoki" jaso dituzte atxikimendu guz-

tiak, "dozenaka boluntariok eskualdeko osasun zentro, lantegi, hezkuntza zentro, merkatu zein kaleetan jarritako postuen bidez". Hori kontuan hartuta, pozik azaldu dira ekimenak izandako harrerarekin, "oso ona" izan dela nabarmenduta. Izan ere, zehaztu dutenez, eskualdeko biztanleria osoaren %13,2ak eman du sinadura, "eta

ehuneko hori handiagoa da, sinadurak adinez nagusiko pertsonak eman dituztela kontuan hartuta". Abenduaren 12an entregatuko dituzte sinadura guztiak. Gasteizera joko dute horretarako, Osakidetzaren zerbitzu zentraletara. 12:00etan jarri dute zita bertan, eta nahi duen orori luzatu diote bertaratzeko gonbita.

Gabonetako zozketa

1000€-KO EROSKETA BALEA



Aingeru Olabarrietaren

ATHLETIC CLUBEN KAMISETA

Parte hartu zozketan!

Erosi Laudion urriaren 18tik abenduaren 15era Igo zure erosketa tiketak Laudio Berrikusi app-ra Zozketaren irabazlearen berri abenduaren 17an emango da



APLIKAZIOA
DESKARGATU PARTE
HARTZEKO



Google Play Store App Store







WWW.LAUDIOCOMERCIAL.COM

QUICK PC REPAIR
Informatika argi eta erraz



ETXEZ
ETXEKO
ZERBITZUA
gainkosturik
gabe

- Salmenta · Konponketak
- Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako
- Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketaren diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien REMOVE PLANARI buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickcrepair.es · quickcrepair@quickcrepair.es

herriz herri

Laudio

Lamuza parkea Berpizteko Plan Bereziaren proposamena aurkeztu dute



Erakusketa atondu dute planaren nondik norakoekin. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aurkeztu dute Lamuza parkea Berpizteko Plan Bereziaren emaitza. Horretarako, erakusketa atondu dute Lamuza plazan eta herritarrek, bisitatzeaz gain, iradokizunak eta ekarpenak bidali ahal dituzte sorkuntzaparkea@laudio.eus eta lamuzasorkuntzaparkea@laudio.eus helbide elektronikotara.

Aurkezpen ofiziala Laudioko Udaleko talde guztiek babestu dute, baita Arabako Foru Aldundiak ere. Hain zuzen, Ainize Gastaka alkateak eta Joseba Koldo Perez de Heredia Aldundiko Euskara eta Gobernu Irekiaren zuzendariak hartu dute hitza ekitaldian.

Ordezkarri politikoez gogoratu dute Laudioko herritarren 1.500 sinadurei esker plan berezi hau finantzatzeko egitasmoa hartu zuelaberegain Aldundiak, aurrekontu parte-hartzaileen bitartez.

Urtebete eman du Laudioko Udalak plana mamitzen, kulturaren diagnostia egiten, besteak beste, eta orain Lamuza plazan ikusgai dago

emaitza. Behin herritarren ideiak jasota, Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean txertatuko da (une honetan sortze prozesuan dagoena) eta orduan helduko da une kritikoei: finantzazioa eta egikaritzea.

Joseba Koldo Perez de Heredia adierazi du 2025eko aurrekontuak onartuz gero, 500.000 euro baino gehiago egongo lirtekela plan horretan sakontzeko.

Eraikin gehiago

Erakusketan ikus daitekeen moduan, eta Taper Arkitektura taldeko kideek azaldu dutenez (eurek egin dute egitasmoaren erredakzioa), planaren asmoa ez da parke mugatzen. Hain zuzen, Kulturلابen eta Udalaren aburuz, parkeak izan behar du kultura eta bizitza egituratzeko ardatza.

Horregatik, Ugarten hasten da egitasmoa eta herrigunean amaitzen da. Paisaian eragin ez ezik, eraikin berrien agerpena ere aurreikusten du. Kultura etxea sorkuntzara soilik bideratzea iradokitzen du ekimenak, baina badaude bestelako eraikuntza berriak ere.

Bukatu da Laudioko Udalaren aurtengo Auzo Batzarren zikloa

Testua
Oihane Ozaeta Fernandez

Laudioko Udalak urtero antolatzen duen Auzo Batzarren zikloa amaitu egin da. Laudioko Kasinoan bildu dira Ainize Gastaka alkatea, Nagore Gomara Partaidetzako zinegotzia eta auzoetako ordezkariak eta bertan azaldu dituzte ondorioak. Oraingo honetan, 2025eko aurrekontu parte-hartzaileak aurreratzeaz gain,

Udalak gai monografiko bat aurkeztu du zortzi auzoetan, gune bakoitzean landu beharreko ildo garrantzitsuenekin. Auzo-batzarrak herritarren partaidetzarako funtsezko gune gisa finkatu dira, eta herritarrek udalerriko zortzi auzoetako beharrak islatzen dituzten proposamenak identifikatu eta eztabaidatu dituzte; hala nola, adinekoentzako jantoki sozialak sortzea, Udala ekimen horretan lanean ari baita dagoeneko, fauna

basatia kontrolatzeko ehizaren kudeaketa hobetzea, "txikibusen" bidez mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta funtzio anitzeko komunitate-espazioak diseinatzea. "Proposamen horiek bizi-kalitatea hobetzeko, mugikortasun iraunkorra sustatzeko, ehiza-jarduera arduraz kudeatzeko eta gizarte-kohesioa eta komunitate-ehuna indartzeko ikuspegi kolektiboa islatzen dute", adierazi du Nagore Gomara Partaidetzako zinegotziak.

Herriz Herri Eguberri

Abenduak 14, larunbata

09:30 Aldai plaza HURBILEKO MERKATUA.

11:00 Aldai plaza "Madalenak prestatu" tailerra.

12:30 Aldai plaza IPUIN KONTALARIA.

17:30 Lezeaga aretoa SORGIN ZAPATUAK: NEGUKO POSTALEN ETA GOZOEN TAILERRAK ETA ASKARIA.

18:00 Kasinoa "OTI: MÁS ALLÁ DEL FÚTBOL. HUELLA Y LEGADO" LIBURUAREN AURKEZPENA ETA OMENALDIA LUIS MARI OTINANO SÁENZEN.

Abenduak 16, astelehena

10:00 Herriko Plaza JOAN-ETORRIA BITORIKAKO ZUBIRA.

17:30 Kasinoa SORLASEAN: UMEEK KUDEATUTAKO MIKROANTZETZLAN ZOPA.

Abenduak 17, asteartea

19:00 Kasinoa DANTZALDIA.

Abenduak 19, osteguna

08:00 Aldai plaza MERKATUA.

Abenduak 20, ostirala

18:00 Ugarteko plaza IKAZKINARI HARRERA ETA ESKUTITZAK.

20:00 Lamuzako San Pedro parrokia KONTZERTUA. Santa Lucia Abesbatzarekin.

Abenduak 21, larunbata

09:30 Aldai plaza HURBILEKO MERKATUA.

10:00 Gardeako Zentro Soziala PING PONG LEHIAKETA.

11:00 Zubiko Etxea "POLBORIOAK PRESTATU" TAILERRA.

15:30 Eskalada-murrua LAUDIO II. ESKALADA-TXAPELKETA.

17:30 Lezeaga aretoa SORGIN ZAPATUAK: MAGIA-IKUSKIZUNA IBON DEL OLMOREKIN, NEGUKO POSTALEN ETA GOZOEN TAILERRA ETA ASKARIA.

20:00 Lamuzako San Pedro parrokia KONTZERTUA Bi Hotsak Abesbatzarekin.

Abenduak 22, igandea

11:30 Landaluze parketik IBIALDIA MARI DOMINGI ETA OLENTZERORI AGURRA EGITERA.

12:00 San Joan Astobitzakoa HARRERA MARI DOMINGI ETA OLENTZERORI.

12:30 Zubiko Etxea KALEJIRA.

16:30 Gardeako Zentro Soziala MUS ETA BRISKA LEHIAKETAK.

18:30 Lamuza-Granja kiroldegia DANTZA-ERAKUSTALDIA.

19:00 Lamuzako San Pedro parrokia KONTZERTUA. Andere Abesbatzarekin.

Abenduak 23, astelehena

12:00-14:00 Aldai plaza PUZGARRIAK ETA JOLASAK.

13:00 Lamuza plaza GABON KANTAK HERRIGUNEKO KALEETATIK.

19:00 Alberto Acero plaza KALEKO ANIMAZIOA.

Abenduak 24, asteartea

10:00 Aldai plaza BASERRITAR ETA ARTISAUEN AZOKA.

11:00 Aldai plaza UMEENTZAKO JOLASAK.

11:30 Aldai plaza SORGINA TXIRULINA: EUSKAL MITOLOGIA IPUIN-SAIO MUSIKATUA.

12:30 Aldai plaza EUSKAL DANTZEN EMANALDIA.

18:15 San Roke nagusien egoitzatik OLENTZERO ETA MARI DOMINGIEN KALEJIRA.

Abenduak 26, osteguna

08:00 Aldai plaza - Herriko plaza MERKATUA.

12:00-14:00 Aldai plaza PUZGARRIAK ETA JOLASAK.

18:00 Lamuzako liburutegia IPUIN KONTALARIA.

19:00 Aldai plaza KALEKO ANIMAZIOA.

Abenduak 27, ostirala

12:00-14:00 Aldai plaza PUZGARRIAK ETA JOLASAK.

19:00 Kasinoa ANTONIO OYARZABALEN PIANO-KONTZERTUA.

20:00 Alberto Acero plaza KALEKO ANIMAZIOA.

Abenduak 28, larunbata

09:30 Aldai plaza HURBILEKO MERKATUA.

13:00 Castillo zinema zaharretik KALEJIRA A.M. SAN ROQUE.

17:30 Tren geltokia ERREGE-POSTARIEN ETORRERA.

19:00 Aldai plazatik KALEKO ANIMAZIOA.

21:00 Alberto Acero plaza DJ EMANALDIA.

Abenduak 29, igandea

13:00 Alberto Acero plaza FANFARREA.

19:00 Lamuzako San Pedro parrokia KONTZERTUA A.M. SAN ROQUE.

Abenduak 30, astelehena

12:00-14:00 Aldai plaza JOLASAK.

Abenduak 31, asteartea

10:00 Aldai plaza BASERRITAR ETA ARTISAUEN AZOKA.

10:00 Aretako Kultur Etxetik X. ALPITXU IGOERA.

11:00 Aldai plaza UMEENTZAKO JOLASAK.

12:00 BI HOTSAK ABESBATZAREN EMANALDIA BI HOTSAK ABESBATZAREN EMANALDIA.

12:30 Aldai plaza BERTSOLARI EMANALDIA.

13:00 Aldai plaza Luja Baserriko Begoña Escuza eta Javi Ibarcheri OMENALDIA.

17:30 Ugarteko plaza SAN SILVESTRE LASTERKETA.

19:30 Alberto Acero plaza KALEKO ANIMAZIOA.

Urtarrilak 2, osteguna

08:00 Aldai plaza - Herriko plaza MERKATUA.

12:00-14:00 / 15:00-20:00 Lamuza-Granja kiroldegia UMEEN PARKEA.

20:00 Alberto Acero plaza ELEKTROTARANGA.

Urtarrilak 5, igandea

19:00 Milagrosa ikastetxetik Herriko plazaraino MELTXOR, GASPAR ETA BALTASAR EKIALDEKO ERREGE MAGOEN KABALGATA.

arrate
gestoria aholkularitza aseguruak

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu

Iturralde kalea 2, AMURRIO
945 89 02 06
info@arrategestoria.com
www.arrategestoria.com

babestutako edukia

UDAN INAUGURATU ZEN ARRANKUDIAGAKO BOLALEKU ERABERRITUA. **KOLDOBIKA ALBIZUA AZKUETA, ARKAITZ GOROSTIZAGA ARBIDE ETA ASIER BARRUETABEÑA BERGANZA** BERTAN SARTUTA DAUDE BURU-BELARRI, NEGUKO TXAPELKETAREN ANTOLAKUNTZAN, ETA BOLA ELKARTEA SORTZEKO ASMOA ERE DUTE ESKU ARTEAN.

“Bolalekua eraberritu zenetik ia bikoiztu egin da txapelketako parte-hartzea”

Aurten berritu da Arrankudiagako bolalekua. Zein izan da bolajokoaren zaletasunaren egoera orain arte udalerrian?

Arkaitz Gorostizaga Arbide: Guk gaztetatik ezagutu izan dugu bolaleku hau. Laudioko klubekoak etortzen ziren hona eta herriko batzuk ere jokatzeko zuten. Gaur egun 70-80 urte dituzte guztiak. Bazeuden Mikeltxu, Luis Mari, Jose Ignacio Larrazabal... jauzi bat zegoen euren eta gure adinekoren artean. Jose Ignaciok antolatzen zuen hemen txapelketa, 2014 urtera arte. Hortik aurrera egiteari utzi zitzaion, eta saiatu ginen dena gure gain hartzen joko gal ez zedin. Hamar urte eman ditugu horretan. Txapelketak egiten jarraitu genuen, eta apurka hasi ginen beste ekimen batzuk ere sartzeko, beti bolatoki honetan.

Zer egoeratan zegoen erai-kuntza eraberritzea baino lehen?

A.G.A.: Ez zegoen oso ondo, oso zaharra zen. 1980. hamarkadan Udalak eraberritzea egin zuen, horma eta teilatuak berri-tuta, baina gero txarrera joan zen. Orain dela urte batzuk ha-geak aldatu ziren Agustin Leturiagaren laguntzarekin, auzo-lanean.

Asier Barrueta Beña Berganza: Apurtu egin ziren eta ezin zen bolatokira sartu.

Koldobika Albizua Azkueta: Pisu handia zuen, goian hormigoia zuelako botata, eta ura ere sartzeko zen.

A.G.A.: Egoera ez zen onena, eta Udaletik aukera ikusi zuten bolatokia osorik eraberritzeko, dirulaguntza bat baliatuta. Guk hobekuntza batzuk eskatu genituen eta zerbait integrala egitea erabaki zuten, ez mugatzea pare bat gauza egitera.



Goitik behera eraberritu dute Arrankudiagako bolalekua. Aiaraldea.eus

Ezberdintasun asko dago oraingo eta bere garaiko bolatokiaren artean?

A.G.A.: Bai. Teilatua berria da eta orain kristalekin aukera dago kanpotik barrukoa ikusteko, lehen ez zegoen horretarako aukerarik. Orain edozein aldetatik ikus dezakezu jokoa. Bestalde, haizea sartzeko eta lurreko buztin kapa murriztuz joan zen, harriak agertzeraino; hori ere ez da ona jokorako. Horregatik, apustu integral horren barruan kokatu da zoruko buztin guztia aldatzea. Udal langileek egin dute hori.

Uste duzue eginiko lanek balioko dutela Arrankudiaga-Zo-

llon bola jokoarekiko zaletasuna berpizteko?

A.G.A.: Bai. Hau pizgarri bat da. Dena berria denez jende gehiago bertaratu da, argi eta garbi. Obrak hasi baino lehen egin genuen azken txapelketan 28-29 pertsonak eman zuten izena. Oraingoan, aldiz, ia bikoizta daude parte hartzen. Eragina izan du, bai.

Bola taldea eratzeko asmoa duzue orain. Zeintzuk dira emango dituzuen urratsak?

A.G.A.: Gutxieneko antolakuntza bat egon behar da Udalaren partetik dirua jasotzeko. Askoz errazagoa da hori egitea elkarte bat eratuta badago. Eta

zuzendaritza talde bat eratu-ta egoteak ere errazten du zeozer gehiago antolatu ahal izatea. Erraztasuna izango litzateke gauza gehiago antolatzerako orduan. Bola jokoak oraindik ez du indar handirik Arrankudiagan. Horregatik, bolariak lortu nahi ditugu, jokoa apur bat hobetu eta jendeari grina sartzeko.

Norbaitek taldean parte hartu nahi badu zer egin dezake?

A.B.B.: Bolalekuko giltzak eskatu.

K.A.A.: Hori da. Orain gazte pilok eskatzen digute giltza eta etortzen dira, orain batez ere, Neguko Txapelketari begira. Entrenatzera ere etortzen dira, txa-

pelketaren egunean jaurtitzera mugatu gabe.

Noiz da Neguko Txapelketa?

A.G.A.: Azaroan hasi zen. Zortzi jardunaldi dira, hemendik eta aipilerera. Herriko txapelketa bat da. Udako Txapelketara badatuz kanpoko jokalaria, federatuak daudenak. Baina oraingoan nahi genuen herriko jendearekin egin, beldurrik gabe jokatzeko eta maila apur bat hartzeko.

Pozik zaudete izandako harrerarekin?

A.G.A.: Bai, 49 pertsona gauden, 20 emakume eta 29 gizon. Ia bikoiztu dugu aurreko urteetako marka.



erreportajea

“Ez dugu azaroaren 25eko pankarta bat izan nahi”



Indarkeria matxista jasan duen eskualdeko emakume baten aitortzak argi dio: “Horrenbeste aldiz biktimizatu gaituztenean, eta ez gaituztenean biktima gisa aitortu... etsitua eta ez ulertua sentitzen naiz sozialki eta instituzionalki”.



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**
Argazkiak **Aimar Gutierrez eta Amaia Pagazaurtundua**

Azaroak 25 “ospatzen” dela esaten da, “indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko eguna”. Errealia da hori, baina zer nolako errealitateak ezkutatu eta azaleratzen ditu? Aiaraldea Komunikabidearekin (anoniotasuna bermatuta) mintzatu da indarkeria matxista jasan duen eskualdeko emakumee-tako bat: “Lau urte pasa dira epaiketarik. Nahiz eta trauma

iraunkorraren uneak izan, ez da ametsgaizto hau bukatu”. Denbora luzea darama osatze feministan:

“Asko egin dut aurrera, baina errekupeazioa (adituen arabera) betierekoa da; 10 urtekoa, batz bestea”.

Osatze feminista

Ahalduntzen dihardu, geozetik. “Eta, bai, denbora asko igaro arren, beldurra izaten jarraitzen dut. Uneotan beldurra ematen dit hitz hauen atzean dagoena ni naizela deskubritzeak”, dio. Pentsamendu ugari azaleratzen dizkiote, ordea,

tratu txar psikologikoen ondorio zuzenak: “Akaso ez da horrenbesterako izan... Bizitakoa indarkeria matxista izan ote den ere dudak jarri izan dut”.

‘Ez zaude bakarrik’ esaldipean eta #NikSinistenDizut traolarekin erakutsi dio jendarteak babesa indarkeria matxista jasan duen emakume askori azken urteetan. Hala ere, ez pentsa aski denik: “Nahiz eta inguruan babesten nauen jende asko izan, bakarrik sentitzen naiz. Ondorioen errekupeazio edo osatzea behar duena ni naizelako. Ni naizelako lo egin ezinarekin borrokan dabi-

“Asko egin dut aurrera, baina errekupeazioa (adituen arabera) betierekoa da; 10 urtekoa batz bestea”

lena, pentsatzen duen hori azaleratzeko ezintasuna daukana, ziurtasun eza sentitzen duena; estresa, memoria falta, antsietatea, harreman berriekiko beldurra duena, deskonfiantza daukana, nire emozio propioak irakurtzeko zailtasunak dituen, autodesbalorazioan diharduena, publiko aurrean hitz egiteari izu diona eta abar, eta abar”.

Ondorio ugari, aitortza txikia

Ondorio ugari eta aitortza zein laguntza txikia dituzte gaur egun indarkeria matxista pairatzen duten emaku-

meeek Aiaraldean zein Euskal Herrian. “Zure buruari zin egiten diozu dena ematen ari zarela, eta ahalik eta lasterren bukatuko duzula sufrimenduarekin, baina denborarekin kaka gehiago ateratzen da, lehen ikusi ere egiten ez zenituen gauzak. Biktima gisa aitortzea asko kostatzen zait”.

Zenbaterainoko aitortza eta erreparazioa dute egoera horretan dauden emakumeek? Zein baliabide daude horri aurre egiteko? Anonimotasuna gorde baina lekukotza zabaldu duen emakumearen hitzetan, “zurikeria morea” nagusitzen da azaroak 25 gisako egunetan: “Esatea gustatuko litzaidake zeinen etsita eta ez ulertua sentitzen naizen soziaki eta instituzionalki. Zeren biktima bat zalantzan jartzen denean eraso-

“Biktimak zalantzan jartzen dira erasotzaile, osasun zein polizia sistemen partetik. Biktima epaitzen da erasotzailearen ordezkaleketan eta soziaki ere”

tzailearen aldetik behin eta berriro, eta osasun, justizia zein polizia sistemen partetik ere...”.

Are, erantsi du, biktima epaitzen dela erasotzailearen ordezkaleketan eta baita soziaki ere”. Horren adibidetzat ditu oso ohikoak diren galderak; besteak beste: “Baina, jo zaitu? Zerbait gehiago egin dizu? Eta erantzuna edozein delarik ere, duda airean dago”.

Aurrera egiteko heldulekuak izan beharko liriateke, bere usitez, aitortza soziala eta instituzionala, “urgenteki”, gainera. “Ez dugu azaroak 25eko pankarta bat izan nahi, edota erailketa matxista dagoen aldiro ateratzen dena. Egia izan nahi dugu jendarte honetan. Ez da nahi dugula, behar dugula da. Aurrera egin behar dugu, orria aurrera pasatu”.



AIARALDEKO
EMAKUME* SORTZAILEEN
IV. AZOKA
 ABENDUAK 15, IGANDEA
 12:00-14:00 FAKTORIAN

PARTE-HARTZAILEAK
 KULUXKA · LEIKE · EIDER GARCIA
 KREAGUNE · ESKERRAK AHULAK GAREN
 MATRAKA · HARRIKA · BOR BOR

FEMINISMO FAKTORIA

beldur barik

Beldur Barik sariak Artziniegako frontoia bete dute ehunka gazterekin

**BELDUR
BARIK
#JARRERA**

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Aiaraldeko Beldur Barik ekimenaren sariak banatu zituzten Artziniengan eta sekulako giroa sortu zuten gazteek.



Testua **Aitor Aspuru Saez**

Beldur Barik sarien banaketa ekitaldia azaroaren 29an izan zen Artziniégako frontoian eta ehunka gaztek parte hartu zuten. Aiaraldeko eta EAE osoko sariak eman zituzten tokiko zein Foru Aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari politiko zein teknikoek. Aitortza orokorrak ez ezik, eskualdekoak ere izan ziren protagonista. Laudio Ikastolak, Latorro Eskolak, Arteko Gure Amak, Etxaurren Ikastolak, Orozko Eskolak, Areta Herri Eskolak, Zabaleko Ikastetxeak, Laudio Institutuak eta Aresketa Ikastolak jaso zituzten sariak.

Eragile aktiboen beharra
Azaroaren 22an egin zuten

Beldur Barik Topaketaren aurkezpen ofiziala Artziniégako Museoan. EAEko zein Aiaraldeko ordezkari politiko ugari babestu zuten aurkezpen prentsaurrekoa.

Erakunde anitzeko kideak izanda ere, guztiek partekatut zuten mezu bera: gazteek, bereziki mutilek, sare sozialen bidez jasotzen dituzten indarkeria matxistaren mezu negazionistei aurre egiteko tresna dela Beldur Barik lehiaketa eta horregatik garrantzitsua dela ikastetxeetan egiten den lana.

Ez soilik neskek indarkeria matxista identifikatzeko (lehen bikote harremanetan menpekotasuna eta kontrola oso ohikoak direlako), baita gizon gazteak ere berdintasunaren eta eraldaketaren eragile aktibo bilakatzeko.

256 lan guztira

Ikus-entzunezko lehiaketak 12 eta 20 urte bitarteko gazteek egindako adierazpen artistikoak saritzen ditu, berdintasun ezari "Beldur Barik jarrerarekin" nola aurre egiten dieten erakusten dutenak, hau da, errespetua, parekidesuna, askatasuna eta autonomia, elkartasuna eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoa adierazten duten jarrerekin.

Miren Elgarrestak parte-hartzeari buruzko datuak eman zituen azaroaren 22ko hitzartzean. Zehazki, 256 lan aurkeztu dituzte, eta horietatik 190 onartu dira lehiaketara, gehienak taldean aurkeztuak.

Guztira 1.224 gaztek parte hartu dute, %58 neskek, %37 mutilak eta %5 beste identi-

1.224 gaztek hartu dute parte aurtengo edizioan, 256 lan aurkeztuta

tate batzuk bezala identifikatzen direnak. Lanak taldean sortu dituzte, emakumeen aurkako indarkeriari buruz elkarrekin hausnartu eta eztabaidatzeko.

Lan gehien aurkeztu diren adin-tartea 15-17 urte bitartekoena izan da, eta lehiaketarako proposamen gehien egin dituen lurraldea Bizkaia izan da.

Lanen gai nagusiak estereotipoak (%27), edertasun-kanonak eta gorputzak (%13), talde-presioa eta gizarte-presioa (%12) eta kaleko indarkeria (%10) izan dira. Bestalde, proposatu diren Beldur Barik jarrerak honako hauek izan dira: sororitatea (%23), erantzun kolektiboa (%22), ahal-duntze indibiduala (%21) eta eguneroko Beldur Barik erantzunak eta estrategiak (%18).

beldur barik



EHUN TANPOI ESPAZIOAN Laudio BHI



IKUSI BIDEOA OSORIK HEMEN:



ESKUBIDEAK EZ DIRA EZTABADATZEN Latorro Ikastetxea



IKUSI BIDEOA OSORIK HEMEN:



FESTAN ASKE Areta Herri Eskola



IKUSI BIDEOA OSORIK HEMEN:



MC BBJ Laudio Ikastola



IKUSI BIDEOA OSORIK HEMEN:



NUN IRRATIA Aresketa Ikastola



IKUSI BIDEOA OSORIK HEMEN:



umeena baino askoz garestia goa izateari buruz?

erreportajea

“13 urteko neskek guk baino azkarrago identifikatzen dituzte eraso matxistak”

Udalekuak bezalako hezkuntza ez-formaleko espazioetan indarkeria matxista eta bestelako zapalkuntzak nola erreproduzitzen diren aztertu du Leire Sanjurjok, hainbat hezitzaileekin partekatutako galdetegi baten bidez. Okondoko Kultura etxean eskaintako solasaldian plazaratu zituen ateratako ondorio nagusiak.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Nola erreproduzitzen dira indarkeria matxista eta bestelako biolentziak gazteen eremuetan? Aldatzen ari da egoera? Nola esku-hartu dezakete hezitzaileek horrelako testuinguruetan? Galdere horien (eta gehiagoren) inguruan hausnartu du Leire Sanjurjok. *Indarkeria matxistaren adierak udalekuetan* izeneko hitzaldia eskaini zuen hezitzaile audioarrak iragan azaroaren 19an Okondoko kultur etxean, Bor-Bor solasaldi zikloaren barruan.

Bere hitzetan, “burbuila edo mundutxikiak” dira udalekuak, eta “gizartean pasatzen den guztia” biltzen dute, “bainakontzentratuta; eraso eta jarrera matxistak barne”. Mota horretako espazioek “potenzial handia” dutela uste du Sanjurjok, gazteek askatasun handiagoa sumatzen dutelako eskolan edo gurasoekin jorratzen ez dituzten gaiak lantzeko. “Oso erraza da haritik tiratzea eta kontatzeko duen guztia entzutea”.

Gauzak hala, Sanjurjoren ustez, gazteentzako “erreferente” bilakatzen dira hezitzaileak edota kirol-entrenatzaileak, “baina zentzu guztietan”. “Urteekin asko errepikatzen diren patrioiak identifikatzen dituzu. Hezitzaileen artean ere bai. Emakume hezitzaileok ere alde oso handiak topatzen ditugu lanean gizonetik”, ziurtatu du.

Besteak beste, begirale berrien artean sumatzen du hori Sanjurjok: “Askotan gertatzen da, mutilen rola edo funtzioa jolastea izatea, eta horren atzean dagoen guztia ez ikustea”. Ho-

rren aurrean, “gizonezko aliatuak” behar direla iritzi du: “Emakumeak soilik gaudenean lantaldeetan jarrera matxistak dituzten gazteen errespetua desagertu egiten da, gure hitzak ez du baliorik, eta ahotsa altxatu behar izaten dugu, bestela ez duelako pisurik... Gizonak taldean egotea behar dugu, baina oso kontziente izanda zein den ematen duten eredia”.

Bestelako oztopoak ere aipatu ditu hezitzaile audioarrak. Denbora da horietako bat: “Guke ezin dugu jendearen bizitza konpondu astebeteetan. Nire gatazkarik handiena hori da: noraino eragin dezakegu?”.

Tresna eta protokolo gabezia ere jarri ditu mahai gainean. “Normalean udalekuaren bilerak bakarria programazioa prestatzera bideratzen da, eta 2-3 ordukoa izaten da”, azaldu du. Hori dela eta, erasoak gertatzen direnean “intuizioz” jokatzeko dute begiraleek, eta “faktore askok” eragiten dute hor. “Ez dago protokolorik, eta larriagoa dena: ez dago horretaz hitz egiteko tarterik. Zer gertatzen da udaleku batean eraso bat gertatzean? Nork kudeatu behar du? Nork sortu behar du horren inguruko informea? Zeren arabera deituko dugu Aldundia, enpresa edo gurasoa?”. Gauzak hala, Sanjurjoren hitzetan, “eseri eta hitz egiteko” beharra dago, “ekainean udalekuek joaterako orduan tresna gutxi batzuek edukitzeko”.

Hezitzaile audioarra ez da bere esperientzia pertsonaletan soilik oinarritu orain arte aipatutako baieztapenak egiteko. Beste hainbat hezitzailearen bizipen eta iritziak ere baliatu zituen Okondoko solasaldian,



Indarkeria matxistaren adierak udalekuetan izeneko lana burutu du hezitzaile audioarrak. Argia.eus

horretarako berariaz zabaldu-tako galdetegi baten emaitzak plazaratu. “Hurrengo hilabeteetan Euskal Herriko gazte ezberdinekin topaketak antolatu nahiko genituzke, mota honetako erasoaren aurrean zer egin eztabaidatzeko”, aurreratu du. Izan ere, “uneoro” daude erantzun beharreko egoerak: “denbora librean espazioa hartzen dutenetatik hasita dutxetan gorputz edo janzkeragatik deseroso sentiarazten dituztenetara... Sexu erasoak ere ematen dira (gazteak euren sexualitatea ezagutzen dabilzan garaia da, gainera)”. Horren aurrean, tresnak sortzeko beharra dago, bere aburuz.

Aldaketa

Hala ere, baikortasunari ere

“Guk ezin dugu jendearen bizitza konpondu astebeteetan. Nire gatazkarik handiena hori da: noraino eragin dezakegu?”

tartea eskaini zion Sanjurjok solasaldian. Bere ustetan, aldaketak datoz belaunaldi berrietan. “Askoz irakurketa osasuntsuagoa, eta politikagoa egiten dute guk gure garaian baino. Argi dute ez dela euren errua, ez dutela hori zertan jasan eta abar”. Gauzak hala, gakoak “maskulinitatearen lanketan” dagoela uste du hezitzaile audioarrak; eta, berriz ere, nagusiengan jarri du begirada: “Ez badira 30-40 urtekoak esertzen hitz egitera, nola eskatuko diegu hori 15 urtekoei? Udalekuek uste baino gehiago markatzen dute, denok gogoratzen dugu gure begiralea”. Horregatik, Sanjurjok uste du “begirada feminista” jarri behar zaiela udalekuei, horretarako denbora eskaini, “*check* bat bakarrik” izan ez dadin.

babestutako edukia

Gorde erosketa-tiketa.



Gabonetan

**EZ IZAN
TXORIBURU**

Kontsumitu buruarekin
Eta zalantzarik baduzu,

kontsumobide.eus



#KontsumitzenJakin



kultura

Lagun eta senideen artean amaitu dute Aiara Dantza Taldearen 40. urteurrena



40 urteko ibilbidea ospatu dute Amurrio Antzokian. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aiara Dantza, aunitz urtez ikuskizunarekin amaitu dituzte Aiara Dantza Taldearen 40. urteurreneko ospakizunak, modu arrakastatsuan. Dantza emanaldiak Amurrio Antzokia bete du eta dantzariak la-

gunen eta senideen beroa sumatu dute. Ikuskizunak euskal dantzen historia islatu du XX. mendetik gaurdaino, ikuspegi orokorretik abiatuta Amurriora heltzeko. Halaber, elkarteak omendu ditu taldearen buruan egon diren kideak eta orain bigarren lerroa igarotzea erabaki dutenak.

Barrrik taldeak lehen kontzertua giro apartan egin zuen Jentilzulon





Jentilzulon giro paregabea topatu zuten. Gonzalo Quincoces

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Musika banda berria du eskualdeak: Barrrik. Laudio, Orozko, Bilbo eta Malagako kideek osatzen dute taldea, eta iragan azaroaren 29an eskaini zuten estreinako kontzertua, Orozkoko Jentilzulo Kulturgunean. Iragan urtean sortu zuten taldea Rubenek eta Josuk, lagunartean musika jotzeko asmoz. Hilabeteak aurrera joan ahala kide berriak batu dira proiektura: Bruno baxu jotzai-

lea eta Yasmine abeslaria. Estilo "dantzagarri eta freskoa" dutela ziurtatu dute, rockaren espektro zabalean kokatzen dutena. "Zaila da musika estilo batean etiketatzea. Post-rock edo post-punk izan zitekeen. Estilo modernoa da", adierazi diote Aiara Dantza Taldeari. Ingeleseko eta gaztelaniazko hitzek osatzen dituzte abestiak. Izan ere, Yasmine abeslaria Malagatik dator eta familia Ingalaterrakoa dauka. Halaber, ez diote euskarariaterik itxi nahi izan.

Gardeako industriagunea kolorez bete dute Graffestan



Dozenaka gazte batu ziren ekimenera. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Dozenaka grafitigile bertaratu ziren azaroaren 30ean Gardea auzoko industriagunera, Graffestaren lehen edizioan parte hartzeko prest. Santa Cruz izeneko geltokiaren parean dagoen horma handi bat zuten margotzeko.

Berehala jarri ziren lanean: baikoitzak zein pareta zati hartuko zuten negoziatu eta sprayak banatu zituzten, eta eguerdirako dagoeneko nahiko koloreztatua zegoen eremu guztia.

Aniztasuna izan zen nagusi topa-

Laudioko Udalaren, Susterra elkartearen, Kultur Faktoriaren eta Kulturlaben artean antolatuta zuten ekimena

ketan. Eskualdeko zein eskualdetik kanpoko margolari beterranoek ez zuten hutsik egin, baina egon ziren baita ere euren lehenengo grafitia margotzera animatu ziren hasiberriak ere. Guztien artean, kolore biziz bete zuten industriagunegrisa.

Baina ez ziren horretara mugatu. Bazkaria ere prestatu zuten, arratsaldeko txanparako indarrak hartzeko. Izan ere, margotzen amaitu ostean, Takeo Txapelketa egin zuten, sinadura spray bidez ondoen eta azkarren nork jartzen zuen ikusteko. Faktorian eman zioten amaiera egunari, La Basuren, Lupu Beltzaren eta DJ Trujoren emanaldiekin.

ENKARKI
ALQUILAMOS SOLUCIONES VENDEMOS SERVICIO

MAKINEN ALOKAIKUA ETA SALMENTA
Eraikuntza, industria, ekitaldiak,
lorenzaintza eta garbiketa



Gurekin
ere, euskeraz!

‘Ritmo Amurrio’ performancea garatuko du Bambik abenduaren 13an



Sortzaile amurriarra Marina Abramovic serbiar artistan oinarritu da pieza sortzeko. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Ritmo Amurrio performance interaktiboa garatuko du Bambik artista amurriarra La Casonan datorren abenduaren 13an. Goizetik arratsaldera egongo da bertan, "ikuslearen eta artistaren arteko erlazioak analizatzen".

Performance-jaialdi baterako pentsatu eta sortutako pieza sorterrira ekarriko du Bambik. "Ez nintzen inoiz garatzera heldu, ulertu nuelako esanahia galtzen zuela, bere testuingurutik kanpo; hau da, Amurriotik kanpo", azaldu dio sortzaile gazteak Aiaraldea Komunikabideari.

Marina Abramovic

Marina Abramovic serbiar artistan oinarrituta dago *Ritmo Amurrio* pieza. Hain zuzen ere, Abramovicen performance ezagunenetako batetik atera du izena Bambik. "Niri gehien eragin didan artistetako bat izan da", azaldu du amurriarra.

Arestian aipatu bezala, ikuslearen eta artistaren arteko erlazioak aztertzea du helburu performanceak. "Oso pieza interaktiboa da—ziurtatu du Bambik—. Ikusleak eurak izango dira protagonista nagusiak". Hortik haratago ere, artistek herriekin duten harremanean sakondu nahi izan du Bambik: "Landa-eremura artea ekartzea

ezinbestekoa dela deritzot, eremu kosmopolitetatik ateratzea".

Beldur eta ezinegonei aurre egiteko tresna da *Ritmo Amurrio* performancea Bambirentzako, eta arteak duen gaitasun terapeutikoan sakondu nahi izan du. "Ni orokorrean ez naiz oso seguru sentitu inoiz Amurrioren, are gutxiago azken boladan. Oso interesgarria iruditu zait modu honetan jendaurrean azaltzea, nire beldurrei aurre egiteko".

Herritar orori luzatu dio Bambik performancearen parte izateko gonbita. Abenduaren 13an, ostirala, 12:00etatik 20:00etara egongo da Amurrioko La Casona eraikinean.

Durangoko Azokan aurkeztu du Zinkha bere lehen diskoa



Musikazuzenean.eus atariaren postuan egon da diskoa salgai. **Zinkha**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Asteburu bizia izan dute Zinkha taldeko kideek, Durangoko Azokan murgilduta egon baitira euren lehen diskoa aurkezten. Ostiral arratsaldean Plateurena antzokiko oholtzan aritu ziren, Ahotsenea sortzaileen gunean. Ordu erdiko emanaldi laburra eskaini zuten bertan, euren kantu nagusiak plazaratuta. "Saiatu gara apur bat diskoa osatzen duten estilo ezberdinetako kantak aukeratzen. Denetarik dago", azaldu zuen Irati Usia abeslariak kontzertua bai-

no lehen eginiko elkarrizketan. Bere hitzetan, "adin eta gustu ezberdinetako kideek" osatzen dute Zinkha, eta "bakoitzak bere alea" jartzen du kantak sortzerako orduan. Etorkizunari dagokionez, unea bizitzen ari direla aldarrikatu zuen Usiak: "Momentuz hemengaude. Badakigu gutxi gorabehera zein den gure bidea eta horretan gabiltza".

Musikazuzenean.eus atariaren postuan egon da Zinkharen diskoa salgai azokan. Taldeko kideak hainbat aldiz egon dira bertan aleak sinatzen. Horrez gain, plataforma digitaletara ere igo dute lan osoa.

‘Maspalomas’ filma grabatzen dabilta Urduñan

Testua
Elene Abaroa Zorroza

Morarti ekoiztetxea *Maspalomas* filma grabatzen ari da Urduñan. Ekoiztetxearen seigarren fikziozko film luzea da eta Jose Mari Goenaga eta Aitor Arregik zuzenduko dute. "Pelikulak Vicenteren, adineko gizon homosexual baten, bizitza kontatzen du. Adinekoen egoitza batean sartzen denean, armairura itzultzea erabakiko du", azaldu dute ekoizleek.

Jose Mari Goenagak idatzi du gidoia eta ildo intimista duen filma dela aurreratu dute. "Maspalomas konfinamendu psikologiko eta identitate ezabatuen inguruan hausnartzeko pelikula bat da" adierazi du gidolariak. Jose Ramos Soroz, Nagore Aranburu, Kan-

dido Uranga, Zorion Egileor eta Kepa Errazti aktoreak dira filmeko protagonistak. Miren Gaztañaga aktoreak ere parte hartuko du, Aiaraldea Komunikabideari aurreratu zionez. Euskal Herriko eta Kanarietako hainbat lekutan grabatuko dute pelikula, eta egunotan Urduñan dabilta grabatzen.

Urduña hainbat ikus-entzuzkoen eszenatoki bihurtu da azken urteetan. 2020. urtean *Alardea* telesaila grabatu zuten. Iaz *El bus de la vida* filmaren eszenatoki bihurtu zen hiria eta aurtengo otsailean Julio Medem zuzendaria bertaratu zen *Ocho* pelikularentzat eszenatoki bila. Horrez gain, Alex de la Iglesiak ekoiztutako *Los Muertimer* filma ere grabatu dute bertan udan. diote euskarari aterik itxi nahi izan.



etxaurre
higiezin agentzia

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!




94 672 85 50

BEZEROARENTZAKO ARRETA

Zumalakarregi 38
01400 Laudio

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak

argazki erreportajea

Masa kritikoa Aiaraldean hedatzen



Munduko ehunka hirietan gertatu bezala, modu espontaneoan elkartuz sortu zen Amurrioko Masa Kritikoa ere. Hiru urte bete dituzte mugikortasun eredu jasangarri baten alde pedalei eragiten, eta mugimendua eskualdean zabaltzeko ahaleginarekin ospatu dute.



Testua eta argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Hiru urte bete ditu Amurrioko Masa Kritikoak. 2021eko abenduan herriko txirrindulari talde batek bizikletak hartu eta errepidera ateratzea erabaki zuen: bizikletek trafikoan duten espazioa eta presentzia aldarrikatu eta txirrindulariei ikusgarritasuna emateko asmoz. Orduetik hilabeteko lehen ostiralero elkartu dira, hutsik egin gabe. Jai-giroan, musika lagun, bizikleta zien patinen gainean eta inolako lehiakortasunik gabe, hilabetez hilabete geroz eta gehiago dira ekimenera batzen doazenak.

Mugimendu globala

Mugimendu global baten le-

kukoa izan da Amurrion hartu dutena. Masa Kritikoa 1992an jaio zen AEBko San Francisco hirian. Mugimendu espontaneo bezala sortu zen, eta horrela hedatu da mundu zabalean. Hilabetean behin munduko ehunka hiritan milaka txirrindulari batzen dira modu espontaneoan, elkarrekin pedalei eragin eta bizikletaren espazioa aldarrikatzeko; eta, noski, baita Amurrion ere. "Inolako gidaritzarik gabeko mugimendua da, erabat anonimoa eta espontanea", azaldu diote Aiaraldea Komunikabideari bertan parte hartzen duten zenbait erabiltzailek.

Ez da protesta bat, ez da manifestazioa, ez dute inolako eskaera zehatzik: "Ez da manifestazio bat, ez du antolakuntzarik; pertsonak, gazteak, nagusiak... bizikletan ibiltzea soilik". Eki-

menaren izaera espontaneoan jarri dute azpimarra Amurrioko bizikleta erabiltzaileek. Erabiltzaile masa handia elkartu eta bizikletak trafikoan merezi duen espazioa aldarrikatzea dute xede: "Auto pilaketak egoten dira maiz, eta horiei ez diegu manifestazio deitzen". Argi eta garbi aldarrikatu dute: "Ez dugu trafikoa oztopatzen, trafikoa gara". Horregatik, bizikleta "arau eta ez salbuespen" duen herria nahi dute.

Mugimendua hedatzen

Egitasmoaren hirugarren urteurrenarekin bat eginez, mugimendu globalari bultzada berri bat emateko baliatu nahi izan dute Amurrioko Masa Kritikoaren baitan elkartzen diren txirrindulariak. Abenduaren 6an, egun osoko egitarauarekin os-

"Ez dugu trafikoa oztopatzen, trafikoa gara"

patu zuten urteurrena, eta hiruro urte hauetan lehendabizikoz Amurriotik atera eta Laudioraino eramane zuten mugikortasun eredu jasangarriago baten aldeko aldarria. Laudio Herriko Plaza, Luiando eta Amurrio arteko bidea musikaz, kolorez eta umore onez lotu zituzten.

Egun osoko ospakizunen ostean, ez zioten hutsik egin hilabeteko hitzordu nagusiari. Arratsaldeko zortziak eta laurdenean GUK eskulturatik puntual abiatu zen Masa Kritikoa, Amurrioko kaleetatik mugikortasun eredu jasangarriago baten alde.

Urtarrilean ere, berriro elkartuko dira ordu eta toki berean. Bizikletan ibiltzen den edonork du ekimenean parte hartzeko aukera, "eguneroko ibilgailuaren erabilera hilabetean behin ospatzeko".

argazki erreportajea



kirola

ATLETISMOA

Aiaraldeko kirolariek parte hartze azpimarragarria izan dute Arabako Kros Txapelketan



Aiaraldeko kirolariek protagonismo handia izan zuten. [Aiaraldea.eus](https://aiaraldea.eus)

Testua
Aitor Aspuru Saez

Abenduaren lehen lehiatu zen Arabako Kros Txapelketa Artziniegako kirolgunean eta eskualdeko atletak aitortzak jaso zituzten. Korrikalari askok lehen sailkatuen artean egotea lortu zuten, bai banaka zein taldeka. Gizonezkoen master kategorian lehen lau sailkatuen artean hiru izan ziren eskualdekoak: Jon Ander Crespo Albizua, lehenengoa; Igor Castillo Ruiz, bigarrena; eta Iñaki Galindez Ugarte, laugarrena. Gainera, kategoria horretan Amurrioko Oinkariak taldea izan zen irabazlea eta Audio Atletismo bigarrena.

16 urtetik azpiko gizonezko atleten artean Khrystian Trujillano Alonso eta Manex Azumendi Balado izan ziren bigarren eta hirugarren, hurrenez hurren. 16 urtetik azpiko emakumezkoekiko dago kienez, Itsasne Solaun Rivacova izan zen hirugarren eta Lau-

dio Atletismo taldea bigarren.

18 urtetik azpiko emakumeen artean June Rivasek eskuratu zuen hirugarren postua eta bere taldea, Audio Atletismok, lehenengoa. Gizonezkoen esparruan, aldiz, Eneko Urkixo eta Peio Barbara izan ziren bigarren eta hirugarren.

20 urtetik azpiko emakumezkoen hirugarren sailkatua Onintze Rodriguez Luja audioarra izan zen. Gizonezkoen diziplinan Unai Garcia Sobrino izan zen hirugarren, Aitzol Gardeazabal Menoyo laugarren eta Egoi Laso bosgarren. Ane Lopez Andres eta Janire Velasco Iturribarria izan ziren bigarren eta hirugarren Absolutu / 23 urtetik azpiko artean eta Josu Apraiz hirugarren. Bi diziplinetan gailendu zen Audio Atletismo. Jende ugari bertaratu zen Artziniegako Kirolgunean, bereziki atleta gazteenak ikusteko, eta eguraldia lagun izan zuten.

FUTBOLA

Aiaraldeko hiru jokalarri deitu dituzte Euskadiko Selektzioaren 12 urtez azpiko taldearekin entrenatzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Euskadiko Futbol Federazioak 12 urtez azpiko selektiorako deialdia egin zuen azaroaren 25ean eta hiru aiaraldear egon ziren entrenatzen Ibaiondon, Orozkon. Federazioak Alain Fraile Luyando, Inar Cua-

dra Martin eta Robert Damian Popa hautatu zituen.

Alain Fraile Luyando atezaina da eta Etorrizuna taldea amurriarrean aritzen da. Aipatzekoa da ez zuela bakarrik parte hartu. Izan ere, bere taldekidea den Inar Cuadra Martin aurrelariak ere jaso zuen

deia. Orozkoko entrenamendura Robert Damian Popa CD Laudioko jokalaria ere bertaratu zen.

Berez, lurraldeka egiten ari dira denboraldiko lehenengo deialdiak eta entrenamenduak, baina arabarrak talde bizkaitarreko kideekin deitu zituzten.

» Babestu **BERRIA**

Zure babes ekonomikoa ezinbestekoa zaigu euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko. 2025erako 3.000+ izan gaitzen, **egin zure ekarpena:**

Urteko ekarpena

100€

(0,27 euro egunean)

Gazteen* ekarpena


30€

(* 30 urtetik beherakoak)

Ekarpen berezia

120€

aukeratu zenbatekoa (urtean 120 € edo gehiago)



berria aldi hau kontatzeko



OSASUNA ETAKIROLA

ZUMALAKARREGI 25, LAUDIO
94 612 18 53

2025EKO HELBURUAK
EGI BIHURTU

15 URTE LAUDIOARREN EGOERA
FISIKOA ETA OSASUNA HOBETZEN

KIROLARI ETA OSASUNARI
BIDERATUTAKO 1.000 M2-KO
AZPIEGITURAK



herriko plaza

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urtarrilean argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.



Luka

Zorionak Luka! 6 urte ingurukoak alaitasunez betetzen... Askok asko maite zaitugu.

Zure familia



BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!

Denborapasak

ERRAZA

		2		8			7	
	7	4				8	5	
8	5					4	9	
2	6				4		3	7
	9		5	7				4
						5	8	9
5			7			3		
3	8		2					
7				6	8		2	

OSO ZAILA

			2	7				8
						6	3	9
3	4				6			
2					1	5		
			4					
5		6			9		1	
		5	8					3
8				9		2		
9	3							

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/denborapasak>

Zozketa



Aiaraldeko Mari
ipuinen bi ale
zozkatuko ditu Aiaraldea
Komunikabideak

'Aiaraldeko Mari' ipuinarne bi ale zozkatuko ditu Aiaraldea Komunikabideak

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Abenduak 19, 15:00etan.

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA


ELBIRA ZIPITRIA ANDEREÑOIA

Egilea: Antton Kazabon

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Argitaletxea: Denonartean

Elbiraren istoria ezagutzeko ipuin interesgarria. Elbira 1906an jasio zen eta andereño aurrerakoa izan zen. Lehenengo ikastola sortu zuen, haurrak ez zituen generoarengatik bereizten eta pedagogia aurrerakoiak erabiltzen zituen garai hartan.



PUF

Egilea: Alaia Martin Etxebeste

Ilustratzailea: Udane Ansa Irigorri

Argitaletxea: 1545

Hiru ataletan, iragana, orainaldia eta etorkizuna lantzen duen galdera album ilustratua da egileek aurkezten digutena. Galderak neurri eta errima jatorrekin egiten dituzte. Bertsoak dira, baina ez, galderak dira baina ez...



GABONLEKUAK

gabonak faktorian



ABENDUAK 23, 26 eta 27

9:00-13:30

Egun bakoitzean bi errezeta ezberdin egingo ditugu haurrekin batera. Neguko eta tokiko produktuak erabiliko ditugu errezetak egiteko.

ADINA: 2021ean jaiotetatik 2016an jaiotetara

PREZIOA

Bazkideek:

45€/haurra

Ez bazkideek:

55€/haurra

Sukaldaritza astea

PREZIOA DOAN

ABENDUAK 30

10:00-14:00

2024 urteari FAMILIAN AGUR esango diegu:

• IBILALDI TXIKIA
• URTE BUKAERAKO HAZI LANDAKETA ETA ERRIUALA
• JASOTAKO NATUR ELEMENTUEKIN ESKULANAK

Adinez txikiak heldu baten laguntzarekin etorri behar dira



Urteari Agur jai



URTARRILAK 2 eta 3

9:00-13:30

Mugimendua, ahotsa eta gorputzekin jolasean ibiliko gara bi eguneko esperimentazio eta sormen prozesuan. Leire Sanjurjo dantzariak dinamizatua.

ADINA: 2021ean jaiotetatik 2016an jaiotetara

Dantzarekin jolasean

PREZIOA

Bazkideek:

35€/haurra

Ez bazkideek:

45€/haurra

IZEN-EMATEA:

Azken eguna abenduaren 20a.

Leku mugatuak daude. Ez-bazkideen kasuan oradinketa datoren arabera gordeko dira plazak. Bazkideen kasuan izen emate ordenaren arabera.

TELEFONOZ: 693 85 53 12 (Aritz) 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

INTERNET BIDEZ: www.labur.eus/faktorianegulekuak2024 edo www.faktoria.eus



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Mari Domingi eta Olentzeroren eskutitza

Kaixo lagun maiteak:

Urte oso bat pasa da azkenengoz ikusi ginenetik. Urte luze bat, zuen irribarreak eta zuen edertasunaz gozatu gabe. Guk urtea beti bezala lanean eman dugu. Ikatza egitearen lanari eskatzen duen dedikazio eta maitasunarekin erantzun diegu. Txondorra mimoz tratatu dugu dagokion moduan. Base-rrian ere lan izugarria egin izan dugu.

Amalurrarekin batera gure lurra zaindu egin dugu. Asko dira natura suntsitzen dutenak, asko dira gure inguruak zikintasunez betetzen dutenak. Guk pertsona hauen bihotzetan, lurrarekiko maitasuna pizten saiatu gara. Gure lurra defendatu dugu!


Jolastu ere egin dugu, kantuan eta jolasean ibiltzea ikaragarri maite baitugu. Basoko animalia eta gure lagunekin batera irri eta algara egin dugu. Dantzan, jolasaeen eta kantuan arratsalde ugari pasa ditugu.

Eta noski euskaraz maitatu gara, euskaraz jolastu dugu, euskaraz lan egin dugu eta euskaraz gozatu dugu. Zuen gorputzaren barruan ere euskararen sua pizteko indarrak bidali dizkizuegu. Suak piztu ditzan zuen aho eta belarriak, eta euskarara ekarri.

Zuek ere gure antzera ibili izana espero dugu. Berrito elkartzeko unea heldu baita, berriz ere kantua eta irria egingo dugun unea. Zuen berotasuna jasotzen gaude eskutitzen bidez, zuen maitasuna helarazten diguzue eta gure egitekoentzako indarra ematen diguzue. Zoragarria da zuen berri izatea marrazki eta idatzien bidez. Jarraitu eskutitzak bidaltzen!

Laster elkarrekin egongo gara, bitartean jarraitu natura maitatzen, kalean lagunekin jolasten eta euskaraz bizitzen.

MARI DOMINGI ETA OLENTZERO



Zenbatu


Hemengo saguak erabat lotsagabetuta daude, ezta? Hamelingo txirulariari deitu aurretik, zehazki zenbat diren jakin beharko genuke. Hortaz, zenbatu itzazu, mesedez. Eta, ondoren, koloreztatu irudi osoa, artista bikaina zara eta.

Mezu gordea

Eman irudiño bakoitzari dagokion hizkia eta Imanol Urbietaren abesti polit bat agertuko zaizu. Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D	E	F	G	H	I	J	K	L	M	N	Ñ
O	P	Q	R	S	T	U	V	X	Y	Z	.	,	!	?




Itzalak

Lotu zuhaitz bakoitzari bere itzala.


Bide batez, margotu zuhaitzak horiz, berdez, laranja, marroiez, gorritz...

SOLUZIOAK



Kontra

Aiaraldetik mundura



Lukáš Píkal

Xabi Gomez

JAIOTERRIA
LAUDIO, 2004

BIZILEKUA
TRENTO (ITALIA)

BIDAIAREN XEDEA
ERASMUS PROGRAMAREKIN NAZIOARTEO ZUZENBIDE
IKASKETAK BURUTZERA JOAN DA TRENTORA



“Baliteke Trentok ez eskaintzea buruan dugun ohiko Erasmus esperientzia”

Italiara joan zara ikastera.

Ni Trenton nago oraintxe bertan. Trento Italiako iparraldean dagoen hiri txiki bat da, Dolomita mendiek inguratuta. Eredu oso menditsua da. Trento bera haran batean dago kokatuta, oso ingurune naturalean. Eskertzekoa da, Aiardetik etorrira, mendiz, landarez eta naturaz inguratutako egoitea, eta ez eremu lehor batean.

Hiri oso lasaia da. Gu erdigune historikoan ibiltzen gara gehien bat, baina hiriaren erdigunea izanik ere zaila da topatzea beste hiri batzuek duten kaosa.

Zer egiten duzu bertan? Nola-koa da zure egunerokotasuna?

Erasmus programari esker etorri nintzen hona, sei hilabeteko egonaldia nago egiten. Aukeraketa egiterako orduan argi neukan ingelesez nahi nituela egin nire ikasketak, ingeles maila hobetze aldera. Trentok horretarako auke-

ra eskaini zidan, eta hona etortzea erabaki nuen.

Baliteke Trentok ez eskaintzea buruan dugun ohiko Erasmus esperientzia estandarra, baina bada beste esperientzia bat, ezberdina eta aberasgarria. Ez dago festa giro handirik, baina orokorrean ez dut faltan botatzen.

Nire lehenengo aldía da etxetik kanpo bizitzen, baina horrek ez ninduen bereziki larritu. Nahiko independentetzat dut nire burua, eta ohitua nago gauzak nire erra-egitera.

Egunerokotasuna pixkat kaotikoa da. Unibertsitateko ordutegia ez da finkoa, eskolak egunegun aldatuz doaz. Baliteke egun batean bost ikasgai jarraian izatea, eta hurrengo egunean unibertsitateara joan behar ez izatea. Gainera, irakasleak nahiko zorrotzak dira. Pixkat zaila da horrela antolatzea, baina horrek ez digu eragozten planak egitea.

Zonalde menditsuan egonda, naturaz gozatzeko aukera izango duzu.

Hiriak eta inguruak makina bat gauza eskaintzen dituzte. As-tero dago ekintzaren bat edo beste Trenton: kirol jaialdiak, merkatuak... Mendira ere asko jotzen dugu, inguruko herritxoak bisitatu ditugu, eta baita inguruan dauden lakuak. Izan ere, oso laku politak daude zonalde honetan.

Banekien zonalde ikusgarri batekin egingo nuela topo. Hain zuzen ere, horregatik aukeratu nuen Trento. Gainera, euskaldunak oso mendizaleak gara, eta askotan jotzen dugu mendira, naturaz gozatzeko.

Dolomitako aterpe batean izan ginen duela aste batzuk. Hainbat eguneko ibilbidea egin genuen menditik, eta espero baino bide zailagoa topatu genuen: desnibel handia, elurra... Ia-ia eskalatzeko jarri ginen. Oso gogorra

izan zen, baina lortu genuen go-raino igotzea, eta egundoko bisitez gozatzea.

Nabaritu duzu alderik Aiardea eta Italiaren artean?

Gehien harritu nauena jai-giroan Italiako gizonak duten jarrerera misogino eta matxista izan da. Nire lagunak txistuak eta lerdikeriak jaso dituzte kalean ibiltze hutsagatik. Jai-giroan, oso astunak dira hemengo gizonak, eta parranda nahikotxo izoratu dizkigute.

Gainerakoan, oro har, nabaritu dut aisialdia edo kaleko bizitza ez dala hain ohikoa. Ez dakit Trentoko kontua den soilik edo Italia osoan hedatuta dagoen. Baliteke Trento iparraldean eta Austriatik hain gertu kokatuta egoteagatik hain bizitza sozial apala izatea. Bere garaian Austriaren parte zian zen eremu hau, oso ohitua germanikoak dituzte.

TRENTO



DESKRIBAPENA

Italia iparraldean kokatutako hiria da Trento, Trentino-Adige Garaia eskualde autonomoan. Lehenengo Mundu Gerrara arte Austriaren parte izan zen. Mundu osoan da ezaguna hiria, bertan ospatu baitzuen eliza katolikoak Trentoko Kontzilioa, luteranismoari aurre egiteko.

AZALERA

157,88 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

118.046 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Italiera da hizkuntza ofiziala, baina ladinoa eta alemana koofizialak dira.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilloia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Gartzan Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Amets Meaza, Lander Ria, Xabi Ugalde, Alberto Gutierrez, Eunat Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



araba álava
foru aldundia diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA